

Apirilaren 20an
JAUNAREN PIZTUERAKO PAZKO GAUBEILA

Eliz atarian suaren inguruan bilduko da eliz batzarra. Han "Aitaren" egin eta herria agurtu eta ospakizuna hasiko du apaizak.

I. ARGIAREN LITURGIA EDO GAUBEILAREN HASIERA

Jauna zuekin.

R/. Eta zure espirituarekin.

Gero, apaizak berak, oharpena egingo du:

Senide maiteok: Gau santu honetan, Kristo gure Jauna hilen artetik piztu denez gero, Eliza santuak dei egiten die mundu zabalean dauden bere seme-alabei, elkaturik, erne eta otoitzean egoteko. Horrela Jaunaren hitza entzunez eta Haren sakramentuak hartuz bere Pazkoa elkartean ospatzen badugu, izango dugu itxaropen, Harekin batean menperatuko dugula heriotza eta Berarekin biziko garela, beti eta beti Jainkoagan.

Jarraian sua bedeinkatuko du, esanez:

Egin dezagun otoitz.

Jaungoiko gure Jauna,

zure Semea da munduaren argia,

eta Beraren bitartez eman diguzu zure fededunoi

zure argiaren distira;

bedeinka + ezazu su berri hau,

eta iguzu, pazko-jai hauetan zeruko gauzetarako suturik,

bihotz garbiz betiko argiaren jaietara iritsi gaitzela.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eta su berriarekin Pazko-zuzia piztuko du esanez:

Aintzaz piztu den Kristoren argiak uxa ditzala gogo-bihotzen ilunak.

Apaizak elkartearen prozesioa egitera gonbidatuko du.

Elizara goaz orain, Kristo Piztuari jarraituz. Hilobitik zutitu da, argi eman digu. Bizi osoan bizi gaitezela Haren argitan.

Batzar-buruak hiru aldiz kantatuko du "Kristoren argia": lehenengo sutondoan, bigarren eliz-atea igarota, hirugarren aldarearen oinetan herriari begira. Hirugarren aldiz kantatzen duenean elizako argiak piztuko dira. Pazko zuria anboiaren ondoan ipiniko da. Han egongo da, Pentekoste egunean ponte-ondora eraman arte.

Pazko-deia

Apaizak lurrin-ontzian intsentsua bota eta liburua eta pazko-zuzia lurrintzen ditu. Ondoren, Pazko-deia kantatzen du anboitik.

Pazko-deia bukatuta adierazi eliztarrei eskuetako kandelak itzal ditzatela.

II. HITZAREN LITURGIA

Apaizak berak, denei esertzeko esanez oharpen hau egingo du:

Senideok: Jesus gure Jaunaren garaipena pozez ospatzen ari garen Gau Santu honetan, eta Beraren etorrera aintzatsuaren zain erne gaudelarik, hasieratik eta historian barna Jainkoak gure alde egin duena ikustera goaz, Liburu Santuek diotena arretaz entzunez. Otoitz egin dezagun, mundua sortzean hasi eta Kristogan Jainkoak burutu duen salbamen ekintza gizadi osora zabal dezan Berri Ona herri guztiei helaraziz guztiek parte har dezaten Kristoren garaipenean.

Ondoren, Itun Zaharreko irakurgaiak egingo dira. Irakurgaia, salmoa eta otoitza. Ematen diren Irakurgaietatik, bat edo beste utzi daiteke. Halere, saiatu hiru gutxienez aukeratzen, Irteera (Exodo) liburukoa sekula utzi gabe.

Lehenengo irakurgaia (Has [Gn] 1, 1 – 2, 2)

Genesis liburutik

Hasieran Jaungoikoak zero-lurrak egin zituen. [Lurra nahas-mahas bat zen: ur handi gainean, iluna. Eta Jaungoikoaren arnasa hegan zebilen ur azalean.

Eta Jaungoikoak honela esan zuen: «Izan bedi argia». Eta sortu zen argia. Eta argia alde batera eta iluna bestera bereizi zituen Jaungoikoak; eta argiari «egun» ezarri zion izen, eta ilunari «gau». Eta arrats eta goiz: lehenengo eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Izan bedi, ur bien artean sabai bat, ur batzuk besteetatik bereiz ditzan». Eta sabaia egin zuen, eta sabai azpiko urak sabai gaineko uretatik bereizi zituen. Eta hala egin zen. Sabaiari «zeru» ezarri zion izen. Eta arrats eta goiz: bigarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Bil bitez zero azpiko urak leku bakar batera, eta ager bedi lehorra». Eta hala egin zen. Lehorrari «lur» ezarri zion izen, eta ur bilduari «itsaso». Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Eman beza lurrak landarea, hazidun belarra, eta ale barruan hazia duen zuhaitza lur gainean». Eta hala egin zen. Lurrak eman zuen landarea: hazidun belarra, bakoitzari dagokion haziarekin; eta ale barruan hazia duen zuhaitza, bakoitzari dagokion haziarekin. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak. Eta arrats eta goiz: hirugarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Izan bitez argi-zuziak zero sabaian, eguna gauetik bereiz dezaten, eta jaiak eta egunak eta urteak

adieraz ditzaten; eta zero sabaian argi-egile izan daitezen, lurrari argi eginez». Eta hala egin zen. Bi argi-zuzi handi egin zituen Jaungoikoak: handiena egunaren zaindari izan zedin, eta txikiena gauaren zaindari; eta izarrak. Eta zero sabaian ipini zituen Jaungoikoak, lurra argi zezaten; egunaren eta gauaren zaindari izan zitezen; eta argia ilunetik bereiz zezaten. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak. Eta arrats eta goiz: laugarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Irakin bezate urek bizi-arnasdunetz; eta ager bitez txoriak lur gainean, zero sabaiaren aurrean». Eta arraintzarrak egin zituen Jaungoikoak eta urak irakin dituen narrazti bizidunak, bakoitza bere erara, eta hegodun hegaztiak, bakoitza bere erara. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak. Eta bedeinkatu zituen, esanez: «Hazi zaitezte eta ugaritu; bete itzazue itsasoko urak, eta ugari bitez hegaztiak lurrean». Eta arrats eta goiz: bosgarren eguna.

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Sor bitza lurrak izaki bizidunak, bakoitza bere erara: abereak, narraztiak eta piztiak bakoitza bere erara». Eta hala egin zen. Eta egin zituen Jaungoikoak piztiak, abereak eta narraztiak bakoitza bere erara. Eta ona zela ikusi zuen Jaungoikoak.]

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Egin dezagun gizona gure antz eta irudiko; eta izan bedi, itsasoko arrainen, zeruko hegaztien, etxeko abereen eta lurreko narraztien jaun».

Eta egin zuen Jaungoikoak gizona bere irudiko: Jaungoikoaren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume egin zituen.

Eta bedeinkatu zituen Jaungoikoak, eta honela esan zien: «Hazi zaitezte eta ugaritu; bete ezazue lurra, eta izan zaitezte beraren jaun; menpera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabilzan bizidun guztiak».

Eta Jaungoikoak esan zuen: «Begira, zuentzat ematen dizkizuet, lurraren azalean hazia sortzen duten belar guztiak; eta hazia sortzen duten aledun zuhaitz guztiak zuen janari izango dira; eta belarra ematen diet janari, lurreko piztia guztiei, eta lurreko narrazti guztiei eta arnasadun guztiei». Eta hala egin zen. Eta ikusi zuen Jaungoikoak, Berak egindako guztia; eta oso ona aurkitu zuen. [Eta arrats eta goiz: seigarren eguna.

Osatuak gelditu ziren, beraz, zerua, lurra eta haien talde guztiak. Eta zazpigarren egunerako burutu zuen Jaungoikoak, Berak egindako guztia; eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen.]

Erantzun-salmoa (Sal 103, 1-2a. 5-6. 10 eta 12. 13-14ab. 24 eta 35c)

Zu - re ar-na - sa bi - dal gu-ga - na ta lur-a-za - la be-
 rri - tu, Jau - na. Zu - rri - tu, Jau - na.

Ene arima, goretsazu Jauna!
 Guztiz handi zaitut, Jauna, ene Jainkoa!
 Handi eta eder zaude jantzia,
 estalki duzu argia. R/.

Ezarri duzu lurra bere orpoetan,
 ez da kolokatuko mendeen mendeetan.
 Itsasoz bildu duzu soineko gisan,
 urak mendi gainean kokatu ziren. R/.

Otoitza

**Egin dezagun otoitz.
 Jainko ahalguztidun betierekoa,
 gauza guztiak harrigarriro egin dituzu;
 egizu, Zuk salbatutako gizon-emakumeek ikus dezatela,
 aldi guztien hasieran mundua egitea harrigarria izan bazen,
 are harrigarriagoa dela,
 azken aldietan Kristo gure Bazkoak eskainitako oparia.
 Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

**Egin dezagun otoitz.
 Gizona harrigarriro egin
 eta harrigarriago salbatu duzun Jainko Jauna,
 iguzu, bekatuaren atseginkeriei
 gogor egin diezaiegula zentzu onez,
 betiko pozetara iristea merezi dezagun.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bigarren irakurgaia (*Has [Gn] 22, 1-18*)

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta honela esan zion: «Abraham!» Abrahamek: «Hemen nauzu». Eta Jaungoikoak berari: «Hartzazu Isaak, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera, eta eskain iezadazu erre-opari, Nik esango dizudan mendi gainean».

[Jaiki zen Abraham goizean goiz, eta astoa txalmatu, bi morroi eta Isaak semea berekin hartu, eta erreoparitarako egurra txikitu ondoren, atera zen eta Jaungoikoak esandako lekura zihoan. Hirugarren egunean, begiak jasorik, lekua urrutira ikusi zuen; eta

morroiei esan zien: «Zaudete hemen astoarekin, mutikoa eta biok haraino joan, eta Jaungoikoa gurtu ondoren hona itzuli arte».

Hartu zuen Abrahamek erreoparitarako egurra eta Isaak semeari bizkarreratu zion; berak sua eta ezpata zeramatzan. Biak bidean zihozela, Isaak honela mintzatu zitzaion aitari: «Aita!» Eta aitak hari: «Zer, seme?» Eta semeak: «Sua eta egurra baditugu; non dugu, ordea, bildots erre-beharra?» Eta Abrahamek: «Seme, bildots erre-beharra, Jaungoikoak eratuko digu».]

Aurrera jarraituz, iritsi ziren Jaungoikoak esandako lekura; [Abrahamek eraiki zuen aldarea eta pilatu egurra; gero bere seme Isaak lotu eta aldarean egur-pila gainean ipini zuen.] Hartu zuen Abrahamek ezpata bere semea hiltzeko; baina Jaungoikoaren aingeruak hots egin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta aingeruak: «Ez luza eskurik zure semearen gainera; ez egin ezer. Ikusi dut Jaungoikoaren beldur zarela, ez baitidazu zure seme bakarra ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso, eta ahari bat ikusi zuen han atzean, adarretatik sastraka artean lotua; joan zen, bada, Abraham, eta aharia hartu eta huraxe eskaini zuen erreopari semearen orde. [Eta leku hari, «Jaunak begiratzen du» ezarri zion izen; eta gaurdaino ere mendi hau «Jaunak begiratzen du» deritza.]

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hala Ni Jainkoa! –dio Jaunak–, horrela egin duzulako, zure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut; eta zure ondorengoak, zeruko izarrak eta itsas bazterrean dagoen hondarra bezain ugari egingo ditut; eta zure ondorengoak, beren etsaien hiri ateen jabe egingo dira; eta lurreko herri guztiak bedeinkatuak izango dira zure ondorengoetan, nire esana egin duzulako».

Erantzun-salmoa (*Sal* 15, 5 eta 8. 9-10. 11)

Zu zai-tut, Jau - na, ni - re in - dar.



Jauna da nire ondare eta edontzia;
 Zuk daukazu eskuetan nire zorja.
 Begi aurrean ipintzen dut beti Jauna;
 eskuinean daukadala, ez naiteke dardara. R/.

Horregatik alai daukat bihotza, pozik barrena,
 haragi honek ere bakean du atsedena.
 Ez baituzu nire bizia Leizera egotziko,
 ezta zure zintzoa ustelak hartzen utziko. R/.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko Jauna, fededunen Aita,
zure semetzako grazia isuriz,
zure agintzariaren seme-alabak ugaritzen dituzu lur guztian,
eta, bazko misterioaren bidez,
Abraham zure zerbitzaria herrialde guztien aita egin duzu,
Zeuk agindu bezala;
egizu, arren,
zeure herriak behar bezala jarrai diezaiola zure deiari.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Hirugarren irakurgai (*Jr [Ex]* 14, 15—15, 1a)

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zer ari zara, Niri oihuka? Esan israeldarrei, abia daitezela. Jaso zuk zure makila, zabaldu zure eskua itsas gainean, eta erdibi egizu itsasoa, israeldarrak itsas barruan sar daitezzen, oinik busti gabe. Nik egiptoarren bihotzak gogortuko ditut, ondotik jarrai diezazueten; eta aintzaz beteko naiz Faraoiaren bizkar eta haren gudari talde, gurdi eta gudarien bizkar. Ikusiko dute egiptoarrek, Ni naizela Jauna, aintzaz beteko naizenean Faraoiaren bizkar eta haren gudari talde, gurdi eta gudarien bizkar».

Abiatu zen, Israelgo gudari taldearen aurretik zihoan Jaunaren aingerua, eta gero atzera itzuli zen. Lainozko pilarea ere aurretik atzera itzuli zen eta atzealdean jarri, israeldarren eta egiptoarren oihal txabolategien erdian. Iluna zen lainoa, eta borroka hasi ezinik igaro zuten gau guztia.

Moisesek zabaldu zuen eskua itsas gainean, eta Jaunak gau guztian haize indartsua bidali zuen itsas gainera; lehortu zen itsasoa, eta urak erdibi egin ziren. Israeldarrak itsasoan barrena sartu ziren, oinik busti gabe, bitartean urak esker-eskuin harresi zitzaizkiela. Egiptoarrek atzetik jarraitu zieten, eta itsas barrura sartu ziren Faraoiaren zaldi eta gurdiak beren gudariekin.

Egungentian Jaunak su eta lainozko pilaretik begiratu zion egiptoarren gudari taldeari, eta zeharo ikaratu zuen gudari talde guztia. Gurdien gurpilak kolokatu zituen; eta doi-doi ibil zitezkeen. Egiptoarrak oihuka hasi ziren: «Goazen ihes Israelengandik, Jaungoikoa beren alde dute eta, egiptoarren aurka».

Jaunak honela esan zion Moisesi: «Zabaltzazu eskua itsas gainera, eta bihur bitez urak egiptoarren eta haien gurdi eta zaldizkoen gainera». Zabaldu zuen Moisesek eskua itsas gainera, eta egungentian itsasoa bere lekura bihurtu zen; egiptoarrek ihes egin nahi izan zutenean, uraren aurrez aurre aurkitu ziren, eta horrela amildu zituen Jaunak egiptoarrak itsas barruan. Bihurtu ziren urak

eta estali zituzten gurdi, zaldizko, eta israeldarren atzetik itsasoan sartu zen Faraoiaren gudari talde guztia; ez zen bat bakarrik ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe igaro ziren itsasoaren erdiz erdi, urak ezker-eskuin harresi zituztela.

Egun hartan atera zuen Jaunak Israel egiptoarren eskuetatik; Israelek egiptoarrak hilak ikusi zituen itsas bazterrean. Eta Jaunaren esku indartsuak egiptoarren kontra egin zuena ikusiz, Israel Jaunaren beldur izaten hasi zen; eta herriak sinetsi zuen Jaunarengan eta Haren zerbitzari Moisesengan.

Orduan Moisesek eta israeldarrek abesti bat kantatu zioten Jaunari:

[Irakurgai honen bukaeran ez da "Jaunak esana" esango].

Erantzun-salmoa (Ex 15, 1-2. 3-4. 5-6. 17-185, 5 eta 8. 9-10. 11)

Kan -ta Jau - na - ri kan - tu be - rri, e - gin bait di -
tu hain - bat ha - rri - ga - rri.

Kanta dagiogun Jaunari garai-garai delako, ‘
zaldi eta zaldun itsasora amildu dituelako.
Jauna baita nire indar eta kemen, ‘ Bera izan da nire salbamen.
Hau dut neure Jainkoa, zabal dut aipatuko,
gurasoen Aita, Bera nik goratuko. R/.

Gudari da Jauna, Jauna du Berak izena.
Faraoiaren gurdi eta gudariak
itsasoan amildu ditu guztiak,
Itsaso Gorrian ito, haren buruzagi handiak. R/.

Otoitza

**Egin dezagun otoitz.
 Jainko Jauna,
 gure egunotan ere ikusten dugu
 zure lehengo mirariak argitsu berritzen dituzula;
 lehenago, herri bat Faraoiaren menpetik aterez
 erakutsi zenuen zeure indarra;
 orain, herri guztiak salbatzen dituzu,
 Bataioko uretan bizi berria emanaz;
 egizu, mundu guztiko herriak irits daitezela
 Abrahamen seme-alaba eta israeldar berri izatera.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Edota:

**Egin dezagun otoitz.
 Jainko Jauna,
 Ebanjelioaren argiari esker argitu dituzu
 Testamentu Zaharreko mirariak,
 eta horrela Itsaso Gorrian
 Bataioko iturriaren irudia ikusten dugu,
 eta Egiptotik askaturiko judutar herrian,
 kristau herriaren irudia;
 egizu, gizon-emakume guztiak, sinesmenari esker,
 Israel bezala hautatuak izanik,
 zure Espirituaren bitartez bizi berrira etor daitezela.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Laugarren irakurgaia (*Is 54, 5-14*)

Isaias profetaren liburutik

Zure egileak bere emazte egingo zaitu; Haren izena, diren guztien Jauna. Israelgo Santua, zure Salbatzailea, lur osoaren Jainko deritza. Emazte baztertu eta atsekabetuari bezala, dei egiten dizu Jaunak berriro; gaztetako emazte baztertuari bezala —dio zure Jaungoikoak—. Apur batez baztertu zintudan; baina maitasun handiz biltzen zaitut berriro. Haserrealdi labur batez gorde nuen nire aurpegia zuregandik; baina betiko onginahiez maite zaitut —dio Jaunak, zure Salbatzaileak—. Noeren egunetan egina egiten dut; orduan zin egin nuen, uholdeak ez zuela gehiago lurrik estaliko; horrela zin egiten dizut orain, ez natzaizula berriz haserretuko, ez zaitudala zematuko. Mendiak tokiz aldatu ere, mendixkek koloka eginik ere, nire errukia ez da zuregandik aldentuko, nire bake elkargoak ez du kolokarik egingo. Zorigaiztokoa zu, ekaitzak joa, atsekabetu hori! Nik neuk kokatuko ditut zure harriak malakita gainean, eta zure oinarriak zafir gainean; errubiz egingo ditut zure gaztelu gainak, esmeralda harriz zure ateak eta harribitxiz zure harresi guztiak. Jaunaren ikasle izango dira zure semeak; eta bakea izango dute. Zuzentasuna izango duzu oinarri sendo. Zapaltzetik urruti egongo zara eta ez duzu beldurrik izango; ikaratzetik urruti egongo zara, eta ez zaizu ikararik berriz hurbilduko.

Erantzun-salmoa (*Sal* 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -

ak biz - ten di - tu.



Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.
Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Entzun niri eta nitaz erruki, Jauna,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
Negarra, dantza bihurtu didazu,
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko ahalguztidun betierekoa,
zure izenaren aintzarako, ugari itzazu
gure fede-gurasoei agindu zenizkien ondorengoak
eta gehitu zure seme-alabatzat aukeratuen taldea,
zure Elizak ikus dezan
oraintxedanik betetzen ari dela
antzinako arbasoek sinetsi eta itxaron zutena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bosgarren irakurgaia (Is 55, 1-11)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Egarri zareten guztiok, zatozte uretara; dirurik ez duzuenok ere bai; zatozte, eros garia eta jan ordaindu gabe, ardoa eta esnea hutsean. Zergatik eralki dirua, janari ez den gauzetan? Eta zuen lan saria, asetzen ez duten gauzetan? Entzun Niri, entzun eta ondo jango duzue; janari gozoen atsegina izango

duzue. Erne belarriak, etorri Niregana; entzun, eta bizkortuko zarete. Betiko elkargoa egingo dut zuekin: Davidi agindu nion agintzaria. Berau egin nuen nire testigu herrien aurrean, jabe eta nagusi herridientzat. Ezagutzen ez duzun herriari dei egingo diozu, eta ezagutzen ez zintuen herria lasterka etorriko zaizu: Jaunarengatik, zure Jaungoikoarengatik, zu goratzen zaituen Israelgo Santuarengatik. Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen artean; hots egiozue, hurbil dagoen artean. Gizon bihurriak utz beza bere bidea, eta gaiztoak bere asmoak; itzul bedi Jaunarengana, eta errukituko zaio; gure Jaungoikoarengana, guztiz errukior baita. Nire asmoak ez dira zuen asmo; zuen bideak ez dira nire bide –dio Jaunak–. Lurretik zerua bezain urruti daude nire bideak zuen bideetatik, nire asmoak zuen asmoetatik. Euria eta elurra zerutik jaisten dira, eta ez dira berriro hara itzultzen, lurra ase, ernaldu eta lehertarazi gabe, ereileari hazia eman diezaion, eta jaleari ogia; hala izango da nire ahotik ateratako hitza: ez da Niregana hutsik itzuliko; baizik egingo du Nik nahi nuena, eta beteko Nik agindutakoa».

Erantzun-salmoa (Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6)



Hartu - ko du - gu u - ra po - zik, o - sa - suna - ren i - tu - rri - tik.



Hara, Jainkoa da nire salbatzaile;
badut uste on eta ez naiz beldur.
Jauna baita nire indar eta kemen,
Bera izan da nire salbamen. R/.



Aterako dituzue urak pozetan ‘ salbamenaren iturrietan.
 «Eskerrak Jaunari, Haren izena oihu egizue.»
 Ezagutarazi herrietan Haren eginen bikainak,
 iragar ezazue Haren izen garaia. R/.

Otoitza

Egin dezagun otoitza.
Jainko ahalguztidun betierekoa,
munduaren itxaropen bakarra,
profeten ahoz, aldez aurretik erakutsi dituzu,
orain betetzen diren misterioak;
piztu zeure herriaren asmo onak,
zure graziarik gabe,
fededunak ez baitezake onbidean aurrera egin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Seigarren irakurgaia (Ba 3, 9-15. 32—4, 4)

Baruk profetaren liburutik

Adi itzazu, Israel, bizi-aginduak; entzun, zuzentasuna ikasteko. Zergatik, Israel, zergatik zaude oraindik etsaien herrian? Zergatik atzerrian zahartzen ari zara? Zergatik zaude gorputz hilekin kutsaturik, hilen artean jausten direnen lerroan hartua? Utzi egin baituzu jakinduriaren iturria. Jainko bideetan ibili bazina, bakean bizi zintezkeen betiko. Ikas non dagoen zuhurtasuna, non indarra eta adimena; jakin dezazun era berean non aurkitzen den bizi luzea, begietako argia eta bakea. Baina nork aurkitu du haren bizi lekua? Nor sartu da haren ondasundegian?

Baina gauza guztiak dakizkienak, ezagutzen du jakinduria, eta aztertzen eta sakontzen du. Lurra betirako sendo ezarri zuenak, eta lau-oineko bizidunez bete zuenak; agintzen dio argiari eta berehala badoa; deitzen du eta esana egiten dio ikaraz. Berdin izarrek ere, beren zelata tokietatik argia pozik ematen dutenek, deitzen ditu, eta «hemen gaituzu» erantzuten die, eta pozik distiratzten dute beren Egilearentzat. Hau da gure Jaungoikoa; ez da besterik, hau bezalakorik. Berak aztertu ditu jakintzaren bide guztiak; eta bere seme Jakobi erakutsi dizkio, bere maite Israeli. Gero lurrean agertu zen, eta gizonen artean bizi izan zen. Bera da Jaungoikoaren aginduen liburua, betiko irauten duen legea; hura gordetzen dutenak biziko dira, eta bazterrera uzten dutenak, hil egingo. Itzul zaitez, Jakob, onar ezazu; zabilta haren argiaren distiratan. Ez utzi besteei zure aintzarik, ezta jende arrotzari ere zure duintasunik. Zorionekoak gu, Israel, Jaungoikoari atsegina zaiona dakigunok.

Erantzun-salmoa (Sal 18, 8-9. 10-11)



Jaunaren legea bikain, barrena berpizteko,
Jaunak hots egina sendo, ezikasiak eskolatzekeo.
Jaunaren arauak zuzen, bihotzaren asegarri,
Jaunaren aginduak garbi, begien argi. R/.

Jaunaren begirunea garbi, iraungarri betiko,
Jaunaren erabakiak egiazko, guztiak orobat bidezko.
Urrea baino, urre araztua baino maitagarriago,
ezti-orrazia baino gozoago. R/.

Otoitza

**Egin dezagun otoitz.
 Jainko Jauna,
 zeure Eliza beti handiago egiten diharduzu,
 gizon-emakume guztiak bertara deituz;
 zaindu itzazu, zeure babespean,
 Bataioko uraz garbitu dituzunak.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Zazpigarren irakurgaia (Ez 36, 16-17a. 18-28)

Ezekiel profetaren liburutik

Jaunaren hitza etorri zitzaidan, eta honela esan zidan: «Gizonaren seme! Israel etxeak, bere lurrean bizi zelarik, lohitu egin zuen lurra bere bizitzaz eta egitez. Orduan haien gainera isuri nuen nire haserrea, lurralde horretan odola isuri zutelako, eta sasijainkoekin zikindu zutelako. Atzerrietan barreiatu nituen, lurraldeetan sakabanatuak ibili ziren. Beren bizitzaren eta egiteen arabera epaitu nituen. Joan ziren herrietan, nire izen santua itsusitu egin zuten; honela esaten zen haietaz: «Jaunaren herria dira horiek, eta Haren lurra utzi egin behar izan dute». Baina erruki izan nion, joan zen herrietan Israel etxeak itsusitu zuen nire izen santuari.

Esaiozu, beraz, Israel herriari: Honela mintzo da Jauna: "Ez naiz zugatik ari, Israel etxe; baizik eta joan zareten herrietan zuek itsusitu duzuen nere izen santuarengatik. Santu agertuko dut Nik nire izen handia, atzerrietan lohitua izan dena, lohitu egin baituzue haien artean; eta zuek zigortzean, haien begientzat santu azaltzen naizenean, —dio diren guztien Jaunak—, herri haiek ezagutuko dute, Ni naizela Jauna. Nik hartuko zaituztet atzerrietatik, lur guztietatik bilduko, eta zuen lurraldera ekarriko. Ur garbiz zipriztinduko zaituztet, eta garbituko zarete zikin guztitik; garbituko zaituztet

zuen sasijainkoetatik. Bihotz berria emango dizuet, eta barnean arnasa berria ezarriko dizuet.

Kenduko dut zuen haragitik harrizko bihotza, jarriko dizuet haragizko bihotza. Nire arnasa zuen barnean ipiniko dut eta nire legebidean ibil eraziko zaituztet, nire aginduak zaindu ditzazuen eta bete. Nik zuen arbasoei emandako lurrean biziko zarete: Nire herri zarete zuek izango eta Ni zuen Jainko"».

Erantzun-salmoa (Sal 50, 12-13. 14-15. 18-19)

Bi-hotz gar-bi - a gu-gan sor - tu, ar - nas biz - ko -

rra bar - ne mui - ne - tan e - ma - gu - zu.

Bihotz garbi bat, Jainko, sor ezazu niregan,
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.

Ez nazazu urrundu zeure aurretik,
zeure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Zeure salbamenaren poza bihur iezadazu,
zure arnasa zabalez sendo nazazu.

Erakutsiko dizkiet gaiztoei zure bideak,
Zugana bihurtuko dira bekatariak. R/.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.

**Jaingo Jauna, indar aldaezina eta argi ilundu ezina,
begira iezaiozu bihotz onez**

**Eliza osoaren misterio harrigarriari
eta, betidanik nahi izan duzun bezala,
buka ezazu bakean**

**gizon-emakume guztien salbamen egintza;
mundu guztiak ezagutu dezala gauza miragarri hau:
erorita zegoena altxatua izan dela,
zaharra berriztatua eta dena lehengo neurrian ezarria,
diren guztien hasiera den
zure Seme eta gure Jaun Jesu Kristori esker.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Edota:

Egin dezagun otoitz.

Jaingo Jauna, bazko misterioa ospatzeko

**Testamentu Zahar eta Berriko irakurgetan eskolatzen gaituzu;
iguzu, ezagutu dezagula zure errukia,
orain hartzen ditugun dohainek sendo dezaten guran
gerokoen itxaropena.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Itun zaharreko irakurgetan bukatzean Aintza kantatuko da. Une honetan piztuko dira aldareko kandelak eta joko dira dorreko kanpaiak nahiz elizako txilinak.

Aintza zeruetan

Testamentu Zaharretik salbamen-historiaren zenbait aldi ezagutu ondoren, orain Testamentu Berrira igarotzean, kanta dezagun pozez Aintza Zeruetan.

Otoitza

**Jainko Jauna, gau santu hau
Kristo hilen artetik piztuaren distiraz argitzen duzu;
gorde ezazu zeure Elizako seme-alabetan
Zuk emandako seme-bihotza;
gorputz-arimaz berriztaturik,
bete-beteen zure zerbitzari izan gaitezen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Epistola (*Erm 6, 3-11*)

San Paulo apostoluak erromatarrei

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, Haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez Berarekin heriotzan hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz piztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitezen.

Izan ere, gure izatea Berarekin bat eginik baldin badago, Harena bezalako heriotzan, berdin egongo da Harena bezalako piztueran ere. Ezagutu dezagun, gure antzinako gizakia Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko izaera hau ezereztua geldi zedin eta, horrela, gu geu bekatuaren morrontzatik askatuak izan gaitezen. Norbait hiltzen denean, bekatutik askatua gelditzen baita.

Beraz, gu Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere Berarekin biziko garela; izan ere, badakigu Kristo hilen artetik piztu zenez gero, ez dela berriro hilko; heriotzak ez du Harengan gehiago aginterik. Haren hiltzea, bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen; eta Haren bizitzea, Jaungoikoarentzat bizitzea da. Horrela, bada, zuek ere eduki itzazue zeuen buruak bekatuarentzat hilak bezala eta Jaungoikoarentzat biziak, Kristo Jesus gure Jaunarengan.

Epistola irakurritakoan, guztiak zutik daudela, apaizak –edota, hala behar izanez gero, salmolari batek– Aleluia kantatuko du jaierratsu, eta gero guztiek abestuko dute berriro.

Gero, abeslariak salmoa abestuko du, herriak tarteka Aleluia erantzunez.

Ebanjelio aurreko oharpena

Iritsi da gau honetako mezua hotsegiteko garaia: Jesus piztu da. Hau da historia osoa berritzen duen egia. Guztiontzat bizitza dakarren mezua da. Horregatik, Aleluia abestuko dugu. Aurrena apaizak bakarrik kantatuko du eta gero guztiok errepikatuko dugu.

Aleluia (Sal 117, 1-2. 16bc-17. 22-23)

Al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu - ia.

Eskerrak Jaunari, ona baita,
Haren maitasuna betikoa baita.

Israel etxeak hau esan beza:

«Haren maitasuna betikoa.» R/.

«Jaunaren eskuinak nau altxatu,
Jaunaren eskuina bizkor da jokatu.»

Hil ez, baino bizi naiz egingo,
Jaunaren eginak nik oihu egingo. R/.

Ebanjelioa (Lk 24, 1-12)

Homiliarako argibideak

Piztu da

Kristauontzat, Jesusen piztuera da gure historiari zentzua ematen dion gertakaria. Hau da, Jesusen bidez mundua salbatzeko Jainkoak izan duen **behin betiko eskuhartzea**. Salbamen historia osoaren muina hori da: hori du norabide, hori du zentzu eta hori du iturburu. Pazko Gaubeilaren liturgiak historia horren gertakari nagusiak biziartzen dizkigu: kreazioa, Abrahamen fedea, Egiptoko askatzea, itun berriaren promesa, piztueraren itxaropena.

Kristoren piztueraren anuntzioak biltzen du dena. “Jesus Nazaretarraren, gurutziltzatuaren bila al zabilatzate? Ez dago hemen. Piztu egin da” (Mk 16, 1-8). Hori da hots egin behar den **berri ona**, aldarrikatzen den bakoitzean errealitate bilakatzen da eta gure munduan. Anuntziari Jainkoak ematen dio indarra. Piztuera ez du giza ahotsak iragartzen, Jainkoaren mezulariek baizik. Emakumeak isilik geratu ziren, beldurrez. Gu beldurra zergatik galdu dugu? Jesusekin piztu garelako. Badakigu, orain itzalean bizi bagara ere, argizko etorkizun berria zabalduko digula berak. Aurretik doakigu Galileara, Ebanjelioa zabaltzeko abentura errepika dezagun.

Kristo hil eta piztuaren misterioa da gure misterioa. Bataioaz bat egiten dugu berarekin (Erm 6, 3-11). Sakramentu-eran bizi dugu, baina egiaz bizi ere. Kristoren heriotza eta hilobiratzea irudikatzen ditugu uretan murgilduz. Uretatik ateratzean pizten gara. Gizaki zaharraren heriotza eta berriaren sorkuntza irudikatzen ditugu: irudikatu eta bizi. Salbatuak sentitzen garenean eta **Kristoren bizi berria bizi** dugunean gara egiaz kristau. Bizitzea da kontua. Jesus piztua ez da gehiago hilko. Bizirik dago betiko, eta gure artean.

Gaur bataioko hitza berritzea une berezia da gure fedearen kontzientzia hartzeko. Egun batean gure izenean guraso eta aitajaun-amandreek eman zuten baietza, gaur guk emango dugu. Fede hori da gure **bizitzak argitzen dituen argia**. Jesus da argia, Kristo poza, Pazko zuziaren ondoan kantatu dugun Pazko-deian adierazi dugun moduan. Krezio berriaren argia da hori. Lehen egunaren argi distiratsua.

Jesusen piztuera, ordea, ez da **gizadiari eragiten** dion gertakari historiakoa bakarrik. Krezio berria da, zero berriak eta lur berria martxan jartzen dituen. Kristo aintzatsuaren erreinuaren abiapuntua. Badira, jakina, oraindik ere gure artean gorrotoaren eta heriotzaren eraginak. Baina etsaiak garaitu ditu Kristok eta guk ere garaituko ditugun esperantza badugu. Ospa dezagun pozez Jesusen piztuera eta abia gaitezen alai bere testigu izatera eta Jauna piztu dela iragartzera. Pazko zoriontsu!

III. BATAIOAREN LITURGIA

Bataio-harria dagoen tokian, baina Bataiorik ez denean erabiltzeko lagungarria da hau. Bataiorik bada Meza-liburuan eta Bataioko Ohikune liburuan datozenak begiratu.

Senide maiteok: Eska diezaiogun Jaungoiko Jaunari santu egin dezala ur hau, ur honetatik bizi berrira jaioko direnak, Kristorengan seme-alaba ordeko egin daitezen.

Santuen letaniak: *Meza liburuko 211-212 orrialdeetan.*

Bataio-harria aldare ondoan ez dagoenean, Santuen letaniak kantatu bitartean egingo da bertara gerturatzeko prozesioa, Pazko-zuzia daramana aurretik doala.

Ponteko ura bedeinkatu aurretik

Orain apaizak ur berria bedeinkatu eta sagaratuko du. Ur horretan zehar igaro ginen gu ilunpeetatik –bekatutik- argitara, hau da, santutasunera. Horixe izan zen gure pazkoa, eta Jesusen Pazkoan parte hartzea.

Bedeinkapen otoitza

Jauna, gauza harrigarriak egiten dituzu sakramentuetan zeure indar ezkutuaz,
eta era askotan erabili izan duzu ura
Bataioko grazia guri adierazteko.

Jauna, munduaren hasieratik
zure Espiritua bazebilen ur gainean,
ordutik har zezan urak santutzeko indarra.

Jauna, uholde handiko uren bidez erakutsi zenigun,
bizi berria ematen digun Bataio bera izango zela
bekatuaren heriotza eta santutasunaren jaiotza.

Jauna, Abrahamen ondorengoak, Itsaso Gorrian zehar,
oinik busti gabe eraman zenituen,
Faraoiaren menpetik ateratako herria
bataiatuen familiaren irudi izan zedin.

Jauna, zure Semea Jordan-ibaian Joanek bataiatu zuenean,
Espiritu Santuaz gantzutua izan zen;
gurutzean zegoela,
bere saihetsetik ura eta odola isuri zituen;
eta piztu ondoren, honela agindu zien ikasleei:
«Zoazte eta egin ikasleak herrialde guztietatik;
eta bataia itzazue Aitaren, eta Semearen,
eta Espiritu Santuaren izenean».

Orain, beraz, Jauna,
 begira iezaiozu zure Elizari,
 eta sortu berarengan bataio-iturria;
 ur honek har beza Espiritu Santuarengandik
 zure Seme bakarraren grazia;
 zure antzeko egina izan zen gizakia,
 Bataioaren bidez zikin guztitik garbituta,
 uretik eta Espiritutik bizitza berrira jaio dadin.

Jauna, zure Semearen bidez,
 jaitsi bedi ur guzti honetara Espiritu Santuaren indarra,
 Bataioan Kristorekin hil eta hobiratuak,
 Berekin piztu daitezen bizirako.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Bataioko aginduak berritzea

Ikus bestela: Meza liburua 214-216 orr.

Une honetan, Pazko-zuzitik kandelak piztuko dituzte berriz eliztarrek.

Senide maiteok: Pazko-misterioaren bidez, Kristorekin hil eta hobiratuak izan gara, Berarekin bizi berrian bizi gaitezen. Horregatik, Garizumako ekinaldiari azkena ematerakoan, berri ditzagun Bataio santuan agindutakoak, eta Satanasi eta haren egiteei uko eginez, Eliza santu katolikoaren jarraitzaile izango garela hitz eman dezagun.

Uko egiten al diozue Satanasi?

R/. Bai, uko egiten diot.

Eta haren egite guztiei?

R/. Bai, uko egiten diot.

Eta haren bekatubide guztiei?

R/. Bai, uko egiten diot.

Sinesten al duzue Jaungoiko Aita ahalguztiduna, zeru-lurren Egilea?

R/. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Haren Seme bakar Jesu Kristo, gure Jauna, Maria Birjinagandik jaioa, oinazetan hila eta hobiratu, hilen artetik piztua eta Aitaren eskuinaldean jarririk dagoena?

R/. Bai, sinesten dut.

Sinesten al duzue Espiritu Santua, Eliza santu eta katolicoa, santuen elkertasuna, bekatuen barkamena, haragiaren piztuera eta betiko bizitza?

R/. Bai, sinesten dut.

Jaungoiko ahalguztidunak, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak, uraren eta Espiritu Santuaren bitartez jaiotza berria eta bekatuen barkamena eman digunak, Berak gorde gaitzala, Kristo gure Jaunagan, betiko bizitza.

R/. Amen.

Bataioko urez zirtatzea

Bataioko uretatik igaro eta Kristorekin betiko piztu ginela gogoratu, ur bedeinkatuz zirtatu eta bustiko gaitu apaizak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza garaitu eta bekatua desegin duenari eska diezaiogun, kristau guztiak izan daitezela leialak gau santu honetan berritutako bataioko hitzekin. Egigun otoitz. R/.
- Kristori, bere piztueraz Elizaren seme-alabak urez eta Espiritu Santuaz berriztatu dituenari eska diezaiogun, sendo ditzala beraiengan Pazko honetan eman dizkigun dohainak. Egigun otoitz. R/.
- Kristori, bere piztueraz ilunpean bizi zirenei erreinuko atek ireki dizkienei eta gizakiari bizia eskaini dionari, eska diezaiogun sufritzen duten guztien alde. Egigun otoitz. R/.
- Kristori, bere piztueraz emakumeei poza eman zienak eta emakumeen bidez apostoluei eta hauen bidez mundu guztiari zabaldu zienak, eska diezaiogun, gaur, hemen, bere garaipena ospatzen dugunon alde. Egigun otoitz. R/.

Jesu Kristo Jauna, zeruan goratzen zaituzte aingeru eta santuek eta lurrean goستن zaitu eta adoratzen zure Elizak; zure Piztueraren egun honetan eskatzen dizugu entzun ditzazula gure otoitzak eta zabal dezazula zure errukia zure piztueran itxaropena jartzen duen herri honengan. Errege bizi baitzara, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

IV. EUKARISTIAREN LITURGIA

Eukaristi otoitza hasi aurretik

Orain iristen gara Gau santu honen bihotzera: Jesus piztua gurekin izango da ogi-ardotan.

Ikus Eukaristi Otoitzerako eskari bereziak 61. orrialdean

Jaunartze ondorengo otoitza

**Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua,
pazko sakramentuez ase gaituzunok
zeure maitasunean bat egin gaitazun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

V. BUKAERA

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirtuarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak

Pazko-jai honetan;

eta zaindu erruki handiz

bekatu-bide guztietan. R/. Amen.

Bere Semearen piztueraz biziberritu zaituzten Jainkoak

eman diezazueta betiko biziaren saria. R/. Amen.

Kristori maitasun-bidean jarraituz,

beraren lagun izan zaitezte piztueran ere. R/. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!

R/. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!